



BIRGAIITZE-PROZESUAN DAGOEN URAREN NINFA

Duela egun batzuetatik, “Uraren ninfa” eskultura Alderdi Ederreko lorategietan dago, tailerretara eraman baitute konpontzeko.

Hiriko Mantentimenduko zinegotzi Miguel Ángel Díez sozialistak adierazi duenez, “iturriko eskulturak matxura bat zuen barrualdeko ur-hodian, eta, beraz, konpondu egin behar izan dugu. Horretarako, eskultura desmuntatu da, iturriko idulkia osatzen duten azulejuak ahalik eta gutxien kaltetzen saiatuz, nahiz eta batzuk kaltetzea saihestezina izan den.”

Eskulturari barruko galdaragintza lanak egingo zaizkio, barrutik hodi berri bat jartzeko. Eskultura zurratu eta berriro margotuko da Alderdi Ederreko lorategietan dagoen jatorrizko tokira itzuli aurretik, kaltetutako azulejuak konponduz.

Azaroan zehar bere lekuan jartzea aurreikusita dagoen eskultura helenistikoa da eta ezkerreko eskuan ura darion anfora bat altxatzen du, eskuinekoarekin bere jantziak jasotzen dituen bitartean. Antzeko eskulturak daude hiriko hainbat zonaldetan.

Prentsa oharra

Nota de prensa



Estilo neoklasikoko eskultura Alderdi Ederren